



fritu zutena sufritu beharrik izan ez dezaten. Horregatik nabarmentzen dute arazo kulturala, eta ez Putinen lege homofobia, arau hori Estatua kaltegile bihurtu duen postrean apaingarri moduan jarritako fruitua besterik ez baita», dio.

Gobernuak datozen asteetan erabakiko du asilo politikoa

Txaleko gris bana jantzita ezkondu ziren, zinta koloretsu batekin apainduta: erdia Argentinako banderaren koloreekin, eta beste erdia ortzadarraren koloreekin, aniztasuna aditzera emateko. Gainera, Errusiako banderak dituen koloreetako lore bana.

GAUR8

Joko Olinpikoak hasi aurretik, larriagotu egin ziren homosexualen tabernen aurkako razziak. Gauza bera gertatu izan da Argentinan. Freyre 19 aldiz atxilotu zuten 1980ko hamarkadan

Gerra kulturala egiteko dago oraindik ere: herritarrek ulertu behar dute ezin dela pertsona bat gorrotatu, maite duen pertsona gizartearen gustuko ez delako

emango dien ala ez. Litekeena da, hedabideetan askotan aipatu den gaia delako eta Freyreren laguntza dutelako. Gainera, agintariek kontuan hartu beharko dute Errusiara bidaliz gero bertan izango duten arriskua.

Eremeev eta Zaitsev ez dira asiloa eskatu duten bakarrak. Asia eta Afrikako toki ezberdinetako dozenaka pertsonak eskatu dute asiloa Argentinan, baina horien erregistroa ez da publiko egiten, eskatzaileek beraiek kontrakoa erabakitzen ez badute.

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak hogeiren bat estatutan legezkoak badira ere, leku gehienetan egiteko dago oraindik ere gerra kulturala: herritarrek ulertu behar dute ezin dela pertsona bat gorrotatu, maite duen pertsona gizartearen gustuko ez delako.

Europa astindu!

Ruben Sanchez

Lozorroan urte batzuk eman eta gero, Europan azken urteetan –krisi ahalguztiduna herritarrek baztertzen eta pobretzen ari den heinean– ezkerra altxatu eta apurka-apurka ari da mobilizatzen. Apurka-apurka badoa berriz ere klase kontzientzia pizten, honezkero ez gara hain “kontsumitzaile” eta hain “hiritar”, behekoak baizik: langabetuak, emakumeak, pobretuak... Tamalez, faxismoak ere “krisi” garaiak baliatzen ditu bere giharra sendotzeko. Gainera, ezkerrek lozorroan emandako urteetan, faxismoa borroka ideologikoa egiten eta irabazten ibili da. Beraiek *bietan jarrai* ibili dira –eta dabilta–. Batetik, ideien borrokan lortu dute Europa arrazista bat sortzea, Europa bat bankuek eta transnasionaletako patroiek gobernatua, Europa inperialista bat. Eta lortu dute Europa horren zuta-beak bermatzen dituzten indar politikoak izatea gehiengo absolutua legebiltzar eta abarretan. Bestetik, kalea irabazten ibili dira: paramilitarrak, hooliganak, kontrol sozialerako talde antolatu bortitzak. Europako herrialde guztietan daude. Kasu batzuetan, %20tik gorako ordezkartza politikoarekin. Ukrainan gobernuan daude, Espainian esbastikekin joaten dira futbolera edo Casa Pepe-ra, oldartsu Grezian, Italian, Frantzian, Holandan, Norvegian, Suitzan, Ingalaterran... Europa osoan. Tokian tokiko abertzalekeriak bultzatu eta etorkin, gay/lesbiana, ezkertiarrei... eraso zuzena egiten diete.

Europar Batasunak babestu duela estatu kolpe faxista Ukrainan? Eta zer? Zer da hain arraro, ezberdin? Zer egin zuten Francorekin gerra zibilean? Eta gerra ostean? Noiz eta zergatik hasi ziren Mussolini eta Hitler “etsai” izaten? Astin dezagun Europa behean eta ezkerrean kokatzen garen emakume, gazte, langile, gay/lesbiana, kultur eragile, etorkinok... mapa ofizialetan agertzen ez garen herriok. •